

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DONOSTIAKO UDAL MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

Iragarkia

Musika eta Dantza Eskolako kudeatzaileak, «Musika eta Dantza Eskola» Tokiko Erakunde Autonomoaren Estatutuetako 17h) artikulua ematen dion eskumenaz baliatuz, 2023ko apirilaren 21ean, honakoa ebatzi du:

Lehenengoa. Antzemandako akatsak kontuan hartuta, Donostiako Musika eta Dantza Eskolako irakasle plaza bat behin betiko betetzeko deialdia, irakaslea (Biolina) lanpostua, arautzen duten oinarri espezifikoaren zuzenketa onartzea, honela:

I. 7. orrialdean, bederatzigarren oinarrian, «behin betiko izendapena», euskarazko bertsioa honela zuzendu behar da:

– *Honako hau dioen lekuan:*

«Praktika aldia gainditu duten eta oinarri hauetako bigarren oinarrian jasotako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu duten hautagaiak Donostiako Udaleko karrerako funtzionarioak izendatuko dira, Irakasle plazan, 10.4. oinarri orokorraren arabera.»

– *Honako hau jaso behar du:*

«Praktika aldia gainditu duten eta oinarri hauetako bigarren oinarrian jasotako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu duten hautagaiak Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» Tokiko Erakunde Autonomoko karrerako funtzionarioak izendatuko dira, Irakasle plazan, 10.4. oinarri orokorraren arabera.»

Bigarrena. Donostiako Musika eta Dantza Eskolako irakasle plaza bat behin betiko betetzeko deialdia, irakaslea (Biolina) lanpostua, arautzen duten oinarri espezifikoaren zuzenketa argitaratzea.

Donostia, 2023ko apirilaren 21a.—Mikel Romero Laibarra, Musika eta Dantza Eskolaren kudeatzailea. (2903)

ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA Y DANZA DE SAN SEBASTIÁN

Anuncio

El Gerente de la Escuela de Música y Danza, en virtud de la competencia que se le atribuye en el art. 17 h) de los Estatutos del Organismo Autónomo Local «Escuela de Música y Danza», con fecha 21 de abril de 2023, ha adoptado la siguiente resolución:

Primero. Teniendo en cuenta los errores advertidos, aprobar la corrección de las bases específicas que regulan la convocatoria para la provisión definitiva de 1 plaza de Profesor/a de la Escuela de Música y Danza de San Sebastián, puesto profesor/a (Violín), en los siguientes términos:

I. En la página 7, base novena, «nombramiento definitivo», la versión de euskera se debe corregir en los siguientes términos:

– *Donde dice:*

«Praktika aldia gainditu duten eta oinarri hauetako bigarren oinarrian jasotako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu duten hautagaiak Donostiako Udaleko karrerako funtzionarioak izendatuko dira, Irakasle plazan, 10.4. oinarri orokorraren arabera.»

– *Debe decir:*

«Praktika aldia gainditu duten eta oinarri hauetako bigarren oinarrian jasotako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu duten hautagaiak Donostiako «Musika eta Dantza Eskola» Tokiko Erakunde Autonomoko karrerako funtzionarioak izendatuko dira, Irakasle plazan, 10.4. oinarri orokorraren arabera.»

Segundo. Publicar la corrección de las bases específicas que regulan la convocatoria para la provisión definitiva de 1 plaza de Profesor/a de la Escuela de Música y Danza de San Sebastián, puesto profesor/a (Violín).

San Sebastián, a 21 de abril de 2023.—El gerente de la Escuela de Música y Danza, Mikel Romero Laibarra. (2903)